

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 358/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea lehiaketa arrunterako 2022ko deialdiari, gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatuak eta hutsik dauden lanpostuak betetzeko Araban

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetzen diren zenbait lanpostu hutsik daudenez gero, kasuan kasuko toki korporazioek lanpostu horiek lehiaketa bidez betetzeko berariazko oinarriak onetsi dituzte, eta udalbatza horietako lehendakariak lehiaketa arrunt bidez deialdia egitea adostu da.

Bat etorritik arau hauetan xedatutakoarekin: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, 92.bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria; Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legea, zazpigarren xedapen iragankorra; Estaturako Gaikuntza duten Toki Administrazioako Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua, eta Estaturako Gaikuntza duten Toki Administrazioako Funtzionarioen Merezimendu Orokorren Balioespena arautzen duen otsailaren 16ko TFP/153/2021 Agindua; Lurralde Orekaren Saileko diputatuak hala proposaturik, eta gaur bertan egindako bilkuran Kontseiluak gaia aztertu ondoren, hau:

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Ohiko lehiaketarako deia egitea estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetzen diren lanpostuetatik Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeetan hutsik daudenak eta III. eranskinean jasotzen direnak betetzeko, IV. eranskinean jasotako oinarrien eta berariazko baremoen laburpenaren arabera.

Bigarrena. 0 eranskinean, zeinaren barnean I. eta II. eranskinak baitaude, ageri diren oinarrien arabera garatuko da lehiaketa.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Jakinarazten zaizun erabakia behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diozu Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango duzu, Administrazio Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekako zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA

ERANSKINA**OINARRIAK****Lehenengoa. Parte hartzea**

1. Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioak lehiatu ahal izango beren sailkapenaren arabera haien azpieskalari eta kategoriari dagozkien lanpostuetarako.

Halaber, parte har dezakete toki administrazioko idazkari, kontuhartzaile eta diruzainen lehengo kidego nazionalako kide diren funtzionarioek, oraingo azpieskaletan sarturik ez egon arren, ondoren adierazten denaren arabera:

Hirugarren mailako idazkariak, idazkari-kontuhartzaileen azpieskalarako gordetako postuetarako.

“Iraungitzeko” diren udal idazkariak, 2.000 biztanle baino gehiago ez daukaten udalen idazkaritzako postuetarako.

2. Betiere, behin-behineko izendatutako funtzionarioak beren azpieskalan eta kategorian eskainitako lanpostu guztietarako lehiatu behar dira nahitaez.

3. Ezin daitezke lehiatu:

a) Epai edo administrazio ebazpen finkoen bidez gaikuntzaz gabetutako edo lanetik kendutako funtzionarioak, xedapen horietan agertzen den etadura epea igaro artean.

b) Funtzionario kargugabetuak zehapena ezarri zen korporazioko postuetarako, ez bada igaro hartan ezarritako denbora.

c) Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuak (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia) 89.1.a) eta b) artikuluan adierazten dituen borondatezko eszedentziako egoeretan dauden funtzionarioak, ez badira igaro bi urte egoera horietara pasatu zirenetik.

d) Edozein administrazio publikotan behin betikoz lortutako destinoan bi urte eman ez dituzten funtzionarioak, salbu eta korporazio berean haien azpieskala eta kategoriarako gordetako lanpostuetarako lehiatzen badira.

Hala ere, Estaturako Gaikuntza duten Toki Administrazioko Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen Errege Dekretuaren 27. artikuluko 1. apartatuko c) letrako bigarren puntuan jasotako kasuetan dauden funtzionarioek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, nahiz eta bi urte ez igaro edozein administrazio publikotan behin betikoz lortutako azken destinoan.

Bigarrena. Agiriak eta parte hartzeko epea

1. 15 eguneko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, estaturako gaikuntza duten funtzionarioek, lehiaketan parte hartu nahi badute, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Lehiatu nahi duten postuak dauden toki korporazio bakoitzari:

Eskaera bat lanpostu bakoitzeko, I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

– Zinpeko aitorpena, adieraziz ez dagoela Estatu Osorako Gaikuntza duten Toki Administrazioko Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 36.2 artikuluan aipatzen diren inguruabarretako batean ere.

Euskarari dagokion betebeharra nahitaezkoa bada, hura betetzen dela egiaztatzeko agiria, dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuz izanez gero.

– Bizitza pertsonala, familia bizitza eta lana bateratzearen merezimendua, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 32. artikuluko 1.g) apartatuan ezarria, egiaztatzen duten agiriak.

– Lanpostuko berariazko merezimenduen egiaztagiriak, kontuan hartzekoak badira, eta autonomia erkidegoak ezarritakoak.

2. Aldi berean bi lanpostu edo gehiagotarako lehiatuz gero, lehiakideek esleipenen lehen-tasun ordena adierazi beharko dute, II. eranskinean ageri den ereduari jarraituz, eta hura bai Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreaken Sailera (Probintzia plaza, 5, 01005, Gasteiz) bai Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzara (Interneteko helbide honen bidez: <https://www.euskadi.eus/servicios/10619>) bidali beharko da. Lehentasunei buruzko orria bakarra izango da eta eskatzen diren lanpostu guztiak agertu beharko dira, edozein delarik haien azpieskala eta kategoria. Lehentasunak adierazi beharraren arrazoa da lehiakide bati lanpostu bat baino gehiago ez esleitzea, eta orri horrek ez du sekula ordezkaturiko deialdia egin duen toki korporazioari zuzendutako eskaera indibidualizatua.

3. Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 1988ko azaroaren 8an hartutako Erabakiaren bigarren idatz zatia (1988ko arazoaren 12ko EHAA) aplikatuz, Autonomia Erkidegoari dagozkion merezimenduak egiaztatzeko (kasu bakoitzean dagozkion epaimahaiak balioetsi beharko ditu), ondoko bide hauek erabiliko dira:

a) Erabaki horretan aipatutako gaiei buruzko ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi eta abarretan parte hartu izana egiaztatzen duten agiriak.

b) Erabaki horretan bertan zehaztutako gaiei buruz egindako argitalpen eta lanak.

c) Erabaki horretan zehaztutako gaiei buruzko jardunaldi edo ikastaroetan irakasle edo txostengile gisa egindako parte hartzeak.

4. Eskatutako betebeharrak, alegatutako berariazko merezimenduak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkionak ere, deialdiak batera argitaratzea agintzen duen ebazpena hartu den egunean bete beharko dira.

Hirugarrena. Merezimenduen balioespena

1. Balioespen epaimahaiak lehiakideek deialdian ezarritako betekizunak betetzen dituzten ala ez egiaztatuko du, eta betetzen ez dituztenak baztertu egingo ditu.

2. Jarraian, bazterturik izan ez direnen merezimenduak balioetsiko dituzte, honela:

2.1. Balioetsi beharreko merezimenduak (gehienez ere 19,50 puntu), estaturako gaikuntza duten toki administrazioeko funtzionarioen erregistroan egiaztatu eta inskribatutakoak izango dira, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzan interesdunek eskura izango duten banakako zerrendaren arabera, zeina Interneteko helbide honetan kontsultatu ahal izango baita: <https://www.euskadi.eus/servicios/10619>, bai eta bitzita pertsonala, familia bitzita eta lana bateratzeari buruzkoak ere. Lehiakideek ezin izango dute beste egiaztagiri gehigarriak egin, ez eta epaimahaiak bestelako balioespenik egin ere.

Bitzita pertsonala, familia bitzita eta lana bateratzearen merezimendu orokorra egiaztatzen duten agiriak, lehiaketan parte hartzeko eskabidearekin batera, eskatutako lanpostua dagoen toki korporazioari bidali beharko zaio, eta merezimendu orokor bezala balioetsiko du dagozkion balioespen epaimahaiak, bidezkoa izanez gero, eta merezimendu horren puntuazioa gainerako merezimendu orokorrekin argitaratu gabe, lehiaketarako deia egiten den egunean.

2.2. Epaimahaiak balioetsiko ditu berariazko merezimenduak (gehienez ere 1,50 puntu) eta autonomia erkidegoak ezarritakoak (gehienez ere 9,00 puntu), lehiakideek aurkeztutako egiaztagiriak oinarri hartuz.

2.3. Gobernu Kontseiluaren 1988ko azaroaren 8ko Erabakiarekin bat etorritik (azaroaren 12ko EHAA, 212. zenbakikoa), honela banatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoak ezarri behar dituen merezimenduen 9,00 puntuak:

– 6,00 puntu, hurrengo gai hauen inguruko lan edo ezagupenengatik: Autonomia Estatutua, eskubide historikoak, Autonomia Erkidegoaren erakunde sareari buruzko araudia eta hizkuntza normalizazioaren plangintza (batez ere nola aplikatzen den administrazio publikoetan).

– 3,00 puntu, honako gai hauen inguruko lan edo ezagupenengatik: Ekonomia Itunaren ondoriozko berezitasun ekonomiko-administratiboak eta, ondorioz, Itunak ogasunaren gaian duen eragina.

Autonomia erkidegoak ezarritako merezimenduak honela egiaztatuko dira:

a) Gai horiei buruz antolatu diren ikastaro, jardunaldi, kongresu, mintegi eta gainerako topaguneetan parte hartu dela egiaztatuz.

b) Espezialitate horiei buruz egindako argitalpenak eta lanak aurkeztuta.

c) Gai horiekin zerikusia duten ikastaro edo jardunaldietan hizlari edo irakasle modura parte hartuz.

3. Era berean, dagokion berariazko deialdian hala ezarrita badago, elkarrizketa egin ahal izango die epaimahaiak egoki irizitako lehiakideei, berariazko merezimenduak edo autonomiari dagozkionak zehazteko eta, hala badagokio, euskara maila egiaztatzeko. Elkarrizketa egiteko, epaimahaiak doakienei jakinarazi beharko die, gutxienez 6 egun lehenago, elkarrizketa zein egunetan, zer ordutan eta non egingo den.

4. Bi lehiakidek edo gehiagok guztirako puntuazio berdina izatekotan, berariazko merezimenduengatik puntuazio handiena lortu duen hautagaiaren alde desegingo da berdinketa, haiek balioetsiz gero. Berdinketak irautekotan, merezimendu autonomikoengatik lortutako puntuazio handienaren arabera desegingo da. Berdinketak irauten badu, honako hauetara joko da: merezimendu orokorren puntuazioa, merezimendu orokorren lehentasun ordena, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 32. artikuluan zerrendaturik dauden ordenaren arabera, eta, azkenean, hautaketa-prozesuko lehentasun ordena.

Laugarrena. Euskararen balioespena

1. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (IVAP) dagokio zehaztea zer eduki eta itxura edukiko dituzten euskara egiaztatzeko probek, zeinak lehiaketako prozesu guztientzat batera deitu eta egin ahalko baitira.

Gauzak horrela, lehiakideek lehiaketan parte hartzeko eskaeran berariaz adierazi beharko dute hizkuntza eskakizun baterako edo batzuetarako proba egin nahi dutela, eta proba eskaera hori Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzara bidali beharko dute, adieraziz zein hizkuntza eskakizun egiaztatu beharko duten. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba egin nahi dela jakinarazten ez bada, ezin izango da hura egin.

Ezin izango da egiaztatu eskuratu nahi den lanpostuak esleituta daukan hizkuntza eskakizuna baino goragokorik.

2. Proba horien bidez eta beste modu batzuetara ere egiaztatu daitezke hizkuntza eskakizunak, hala nola IVAPEk egindako egiaztagiriri baten bidez edo beste egiaztagiriri baliokide batzuen bidez, halaxe xedatzen baitu azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko denak. Agiri horiek lehiaketan parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira.

3. Euskararen jakite mailaren balioespena, merezimendua denean, honela egingo da:

- 4. hizkuntza eskakizuna edukitzeagatik: 3,50 puntu.
- 3. hizkuntza eskakizuna edukitzeagatik: 3,20 puntu.
- 2. hizkuntza eskakizuna edukitzeagatik: 2,40 puntu.
- 1. hizkuntza eskakizuna edukitzeagatik: 1,42 puntu.

Euskara jakitearen merezimenduaren gehieneko balioespena ez da izango, inolaz ere, deitutako lanpostuak esleituta duen hizkuntza eskakizunerako aipatutako baremoan aurreikusitakoa baino handiagoa.

Bosgarrena. Bazter utzitakoak

Balioespen epaimahaiak eskatzen den euskara mailarik ez duten lehiakideak kanpoan utziko ditu, euskara maila bete beharrekoa izan eta derrigortasun data igaro bada.

Seigarrena. Ebazpen proposamena

Epaimahaiak lehiakideen bazterketa eta azken puntuazioa egin ondoren, baztertu ez direnen eta haien puntuazioen zerrenda bidaliko dio udalbatzari, puntuazioaren arabera ordenaturik, bai eta baztertuen zerrenda arrazoitua ere.

Zazpigarrena. Ebazpena

1. Korporazioak lehiaketaren ebazpen proposamena egingo du, balioespen epaimahaiak bidali dion zerrendaren arabera.

2. Ebazpen proposamen hori arrazoitua izango da, eta erregelamenduzko arauak eta deialdiaren oinarriak bete direla jaso behar da. Edonola ere, prozedura egoki bete dela eta izangaien merezimenduen azken balioespena behar bezala aintzat hartu dela egiaztatu beharko da, eta baztertu ez diren lehiakide guztiak eta haien puntuazioak agertu beharko dira proposamenean.

3. Ebazpen proposamena Arabako Foru Aldundiari bidali beharko zaio eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo 30 egun baliodunen barruan.

Zortzigarrena. Izendapenak koordinatzea

Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak beharrezkoak diren koordinazio lanak egingo ditu izendapen anizkoitzik ez egoteko, interesdunek lehentasun orrian jarritako ordena eta kasuan kasuko lanpostuetarako lortutako puntuazioa kontuan izanda esleituko direlarik lanpostuak.

Lehiakide batek lanpostu bat baino gehiago lortu eta lehentasun orririk egin ez badu, behin-behinean betetzen ari zen lanpostua zein den kontuan hartuz egingo da behin betiko esleipena.

Arabako Foru Aldundiak lehiaketaren ebazpena bidali beharko du Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanen eta Administrazio Erregistroen Zuzendaritzara.

Bederatzigarrena. Izendapenak egitea

Arabako Foru Aldundiak izendapenak egin eta ALHAOn argitaratuko ditu. Egin ere, koordinazioaren emaitzaren arabera egingo ditu, izangai bati lanpostu bat baino gehiago esleitu bazaizkio, eta korporazioen ebazpen proposamenaren arabera, gainerako egoeretan.

Hamargarrena. Lanpostuaz jabetzeko epea

1. Lehiaketan lortu diren lanpostuez jabetzeko epea 3 egun baliodunekoa izango da, lanpostua aurreko lantokiaren herri berean lortu duten izangaiantzat, eta hilabetekoa lehen destinoa bada edo beste herri batean badago.

Epe hori aurreko lanpostua utzi ondorengo egunean hasiko da; izendapenak ALHAOn argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodunetan utziko dira lanpostu horiek.

Ebazpenak zerbitzu aktiboan hasi beharra badakar berekin, lanpostuaz jabetzeko epea ebazpena argitaratzen den egunetik zenbatu beharko da.

2. Interesdunek baimen edo lizentziaren bat izanez gero, haiek amaitu arte ez da hasiko lanpostua jabetzan hartzeko epeen kontaketa.

3. Zerbitzuaren arrazoiengatik, eta lanpostua utzi behar duen eta hura jabetzan hartu behar duen izangaiaren korporazioetako lehendakariak hala adostuta, atzeratu egin daiteke lanpostua uztea eta hura jabetzan hartzea, gehienez ere 3 hilabetez. Jabetzan hartu behar den lanpostuaren korporazioko lehendakariak Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eman beharko die erabakiaren berri.

Salbuespenez, interesdunak eskaturik eta justifikatutako arrazoiengatik, lanpostuaz jabetzea ere denbora berdinez atzeratu ahal izango da, kasuan kasuko lehendakariaren arteko akordio bat dela medio, horren berri emanda Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari.

Hamaikagarrena. Destinoen ukazintasuna eta borondatezkotasuna

Esleitzen diren destinoak ukazinekoak izango dira, eta borondatezko izaera izango dute. Ondorioz, ez da ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko lekuz aldatzeagatik.

Hamabigarrena. Lanpostua uztea eta lanpostuaz jabetzea

1. Lehiaketaren ebazpenaren arabera, lanpostu bat lortu duten lehiakideek aurreko postua uzteko eta berriaz jabetzeko egin beharreko eginbideen berri eman beharko zaie Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eta Arabako Foru Aldundiari, bi izapide horiek egin eta hurrengo 3 egun baliodunetan.

2. Lanpostuaz jabetzeak lanpostu horri loturik dauden eskubide eta betebeharrak hartzea dakar berekin, eta une horretatik aurrera funtzionarioa kasuan kasuko udalaren menpe egongo da.

Hamahirugarrena. Baliabideak

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beronen aurka errekurtsioa aurkez dezakete honako hauek:

- Administrazio publiko interesdunak: zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, 2 hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, aurretiazko aukerako errekerimendua eragotzi gabe.

- Pertsona interesdunak: aukeran, berraztertze errekurtsioa ebazpena eman duen organoari berari, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontatuta, edo zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, 2 hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontatuta.

Aurrekoek gainera, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango dute, indarreko legediaren arabera.

I. ERANSKINA

ESKAERA ORRIA (1)

I. Datu pertsonalak:

Abizenak:

Izena:

Nortasun agiri nazionala:.....

Langile Erregistroko zenbakia:

Helbidea (jakinarazpen eta komunikazioetarako):

Kalea eta zenbakia:

Posta kodea eta herria:

Probintzia Telefonoa

II. Datu profesionalak:

Azpieskala (2): Kategoría:

Lehiakidearen administrazio egoera:

Oraingo destinoa:

Oraingo destinoan nola eta noiz izendatu zuten (3):

III. Lehiatu nahi duen lanpostuaren datuak:

Lanpostua zein toki erakundetan dagoen:

Probintzia:

Lanpostuaren izena:

IV. Hizkuntza eskakizuna

Egin nahi d(it)uzu euskararen jakite maila egiaztatzeko proba(k)?

BAI EZ

Adierazi zein hizkuntza eskakizun egiaztatu nahi duzun: 1. HE 2. HE 3. HE 4. HE

Estaturako gaikuntza dutenentzako LEHIAKETA ARRUNTEAN parte hartzea eskatzen du; lehiaketa eguneko ebazpenaren bidez argitaratu zen (EHAren ko alean), eta adierazitako lanpostura aurkeztu nahi du. Oinarri komunitario lehenengoan adierazten diren baztertzeko arrazoirik ez duela aitortzen du, eta atzeko aldean zehazten diren agiriak aurkezten ditu.

(Tokia, eguna eta sinadura)

.....ko toki korporazioaren lehendakari jauna/andrea.

(1) Lehiaketan eskatzen den lanpostua bete gabe duen toki korporazio bakoitzaren lehendakariari bidali eskaera. Autonomia erkidegoko hizkuntzaren jakite maila egiaztatzeko agiriak erantsi, hala behar denean, bai eta berariazko merezimenduak eta autonomiari dagozkionak egiaztatzeko agiriak ere.

(2) Eskaeran agertzen den lanposturako lehiatzea ahalbidetzen duen azpieskala baino ez da bete behar.

(3) Behin betikoa edo behin-behinekoa.

(4) Hizkuntza eskakizunen bat egiaztatzeari buruzko proba egin nahi izanez gero, proba eskaera hori Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzara bidali beharko da, adieraziz zein hizkuntza eskakizun egiaztatu beharko duten.

(5) Aipatutako atzealdea.

Aurkeztutako agiriak.

A) Autonomia erkidegoaren hizkuntza jakiteko betebeharrari buruzkoak (berariazko oinarrietan agertzen bada):

B) Berariazko merezimenduei buruzkoak:

C) Autonomiarekin lotutako merezimenduei buruzkoak:

II. ERANSKINA

DESTINOAK ESLEITZEKO LEHENTASUN ORDENAREN EREDUA

(Lanpostu batera baino gehiagotara aurkeztu nahi denerako baino ez)

I. Datu pertsonalak:

Abizenak:

Izena:

Nortasun Agiri Nazionala:

Helbidea (jakinarazpenerako):

Kalea eta zenbakia:

Posta kodea eta herria:

Probintzia Telefonoa

II. Datu profesionalak:

Eskuratu nahi d(ir) en azpieskala(k) eta kategoria(k):

Lehiakidearen administrazio egoera:

Oraingo destinoa:

Oraingo destinoan nola eta noiz izendatu zuten (3):

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioetako funtzionarioentzat gordetako hainbat lanpostu betetzeko lehiaketatan batera parte hartzeko eskaera egin du. Lehiaketan deialdia batera egin da Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioarekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren ebazpen baten bidez (..... zenbakiko EHAA, (e) koaren(e) koa). Horiek horrela, deialdi honen oinarri orokorren 2. oinarrian ezarritakoaren arabera, lehentasun orri hau aurkezten dio zuzendaritza horri eta Arabako Foru Aldundiari, eskatutako lanpostuetatik bi edo gehiago esleitzen badizkiote ere:

Hurrenkera zenbakia	Korporazioa eta probintzia	Lanpostuaren izena
---------------------	----------------------------	--------------------

1°

2°

3°

4°

5°

6°

7°

8°

9°

10° (2)

(Data eta sinadura)

Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria. Gasteiz.

Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka zuzendaria. Gasteiz.

(1) Behin betikoa edo behin-behinekoa.

(2) Gehitu lehentasunen zerrendan jarri nahi dituzun lanpostu adina zenbaki.

III. ERANSKINA

LEHIAKETA ARRUNTEAN ESKAINTZEN DIREN LANPOSTUEN ZERRENDA

Azpieskala: idazkari-kontuhartzaileak.

HIRUGARREN MAILAKO IDAZKARITZAK:

– Toki erakundeen aholkularia (laguntza tekniko zerbitzua Arabako Foru Aldundia).

IV. ERANSKINA

BERARIAZKO OINARRIEN ETA BAREMOEN LABURPENA

HIRUGARREN MAILAKO IDAZKARITZAK:

* ARABAKO FORU ALDUNDIA.

Izena: Toki Erakundeen Aholkularia.

Atxikipena: Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua (Lurralde Orekaren Saila).

Taldea: A1

Eskala: Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioak.

Azpieskala: Idazkari-kontuhartzaileak.

Klasea: 3^a

Plaza hutsen kopurua: 1

Destino-osagarria: 25

Berariazko osagarria: 33.734,55 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Elkarrizketa: Ez dagokio.

Gutxieneko puntuazioa:

Berariazko merezimenduak: Ez dira ezarri.

Balioespen epaimahaiaren osaera:

Epaimahaiburua: Arabako Foru Aldundiak izendatutako pertsona bat.

Epaimahaikideak: EAEko administrazioak izendatutako pertsona, epaimahaiko idazkaria izango dena.

Estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat, deitutako lanpostuaren azpieskala berekoa edo goragokoa.